

## EHNE: Nekazaritza berri baten alde

ENHE nekazari sindikatuak Hego Euskal Herrian 6.000 kide baino gehiago ditu eta Espainiako Estatu-tuko, Europako zein nazioarteko erakundeetan dago. Aurreko astean V. Konfederazio Batzarra izan zuen Agurainen (Araba). Batzarrak goiburua hau izan zuen: "Beste nekazaritza mota bat posible da gizarte berri baten alde". Euskal nekazaritza eta abeltzaintza anitzak direnaren mezua indartu eta eguneratu nahi izan zen. Batzar honen helburua garai berrietara moldatzea izan da, bai barne antolamenduan bai gizarte arloan. Aldaketaren aldeko apustua egin du, beti ere lau probintzien eta sektorearen partaidetza kontuan izanda. Ez du ahaztu, halaber, ENHE nekazariak eta abeltzainek sortutako sindikatua dela, eta eurentzat sortua. Nekazaritzan lan egin nahi duten gazteen eta emakumeen aldeko hausnarketak ere izan ziren. Batzarrak nekazaritzan eredu jasangarri eta sozial baten aldeko apustua ere egin zuen, honen baitan hainbat errealitatek du leku, eta guztiak dira onargarriak. V. Batzar honek lana sortzen duen ereduaren alde ere egin zuen, lurraldea egituratuko duena eta etorkizunean segida izango duena. Kalitatezko elikagaiak ekoizteko gai den eredu, eta ingurumenarekin errespetuzkoa eta bertan integratua. Hau guztia gizartearen konpromisoaren baitan eta nazioartearekin izandako bere esperientzia solidarioa ahaztu gabe. Sindikatu honek dituen hogeita hamar urteak hazten jarraitzeko eta nekazaritza eredu berri baten aldeko egungo apustuak praktikan jartzeko berme onak dira.

*Juan Mari Arregi*

## Ziurtagiriaren Elkarteak

**KONTSEILUAK** duela zazpi urte, ekainean, sortu zuen Bai Euskarari Ziurtagiria. Joan den asteko ekitaldian (hilak 14) Kontseiluak lekukoa pasa dio Ziurtagiriaren Elkarteari. Hemen-dik aurrera Elkar-teak kudeatuko du Bai Euskarari Ziurtagiria. Elkar-tea osatzen dute Kontseilua osatzen duten erakundeek, Bai Euskarari Ziurtagiria lortu dutenek eta proiektuan lagundu nahi duten eragileek. Elkar-teko zuzendaria Rober Gutierrez izango da. Zazpi urtean ia 1.500 enpresa, saltoki eta bestelako entitatek lortu dute Bai Euskarari Ziurtagiriaren hiru mailetako bat.

## Orkoien D ereduko bi gela

**NAFARROAKO ORKOIEN** herrian, ez dute D eredurik; D eredurik ez zuen Nafarroako eremu mistoko herri bakarra izan da orain arte. Herrian D ereduari aurrematrikulatu diren 26 haurrak Sanduzelaira joatekoak ziren eta horrek arazoak sortu zituen Sanduzelain, haur batzuk lekurik gabe geratu baitziren. Nafarroako Gobernuak euskarazko ereduko bi gela zabalteaz erabaki du 3 urteko umeentzat. Orkoien bi gelak irekita arazoa konponduko da, baina adabakia besterik ez da Nafarroako hainbat herritan eta Iruñeko hainbat auzotan arazo berbera urte-ro errepikatzen delako.

## BAHEA

Claude Hagege frantziar hizkuntzalariak Berrian esanak: "Hezkuntzan murgiltze eredu da eraginkorrena, baina ez da aski. Iraupena transmisioaren bidez bermatzen da, eta Ipar Euskal Herrian biziki hauskorra da. Nola ez da izan, ikusirik unibertsitateak euskarari ematen dion tokia! Euskal ikasketak ahulak dira, eta Bordele, Tolosa eta Baiona artean daude zatiturik. Gizarteari igortzen zaion mezua argia da. Ipar Euskal Herrian unibertsitatearik ez dago Frantziak lehen mailako ehorketa prestatu diolako euskarari. Horiek horrela diren bitartean, ikertzaileek lan esker-ga eginen dute euskararen alde, baina ez du eraginik ukanen gizartearen atxikimendurik ez badu".



## Uxarte Nekazalturismoa

5 logela bikoitz bainugelarekin, telebista eta Wifi. Gosariak eta afariak

Uztzila auzoa  
01168 Aramaio

☎ 945 44 51 46  
Faxa 945 44 59 10

www.uxarte.net  
uxarte@euskalnet.net

## PSN-Nabai Nafarroan, hiruko zulatua EAEn

### NAHASI, OSO NAHASI

eratu dira udalak han-  
hemenka, eta orain ikusi  
beharko da zer eragin  
duten foru gobernuen era-  
ketetan, baina eremu hone-  
tan kartak gero eta ageria-  
goan daude. Nafarroan,  
denak adierazten du azke-  
nean PSN-Nabai-NEB  
akordioa nagusituko dela,  
udal akordioek eta buruzagi  
sozialisten iragarpenek  
hala adierazten dute. Azken  
minutura arte —egunotan  
futbol zelaietan ikusi den moduan—,  
partidaren emaitza jokoan da. Edo  
udal eraketek erakutsi duten bezala,  
esan diezaietela bestela Zumaia eta  
Azpeitiko alkategai jeltzaleei. Eta lau  
urte atzera eginez, Madrilgo *tamaya-  
zo* ospetsuaren itzala ere hor da.  
Orain ikusi beharko da zer jarrera  
hartzten duen PSNk Iruñeko Udalean,  
agindutako oposizio zorrotza egiten  
badu Yolanda Barcinak gorriak ikusi  
ditzakeelako, batez ere kontuan har-  
tuta UPN erabateko jauntxokeriaz  
aritzera ohituta dagoela. Baina lau  
urteko agintaldi osoa amaituko ote  
du? Su-eten berri bat gabe, PSNk  
oso gaitza du ANVrekin batera zen-  
tsura mozio batean parte hartzea,



JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

Yolanda Barcina izango da, hirugarrenoz, Iruñeko alkate.

baina lau urtetan joan-etorriak ugari  
izan daitezke politikan, eta ez litzate-  
ke baztergarri alkate aldaketa saioa,  
batez ere PSOEk 2008ko Espainiako  
hauteskunde orokorrak irabaziko  
balitu. Nahi baino gutxiago, baina  
Nafarroan aldaketa politikoaren  
lehen zantzuak ikusten ari dira jada,  
herritarrek hori euren egunerokota-  
sunean nozitzea da orain gauzatu  
beharrekoa; UPN eta enparauen  
governu moldeak ikusita, egia esan,  
ez litzateke horren zaila izan behar.

**EAE-KO** hiru foru gobernuetako ego-  
ra gero eta garbiagoa da. Bizkaian  
EAJk ez du arazorik, Gipuzkoan ere  
EAJk eta EAK gutxiengoan jardungo

dute, batzuetan EB-Arala-  
rren sostengua bilatuz eta  
proiektu handietarako  
—errautestia...— PSErena.  
Araba dago zintzilik eta  
ikusi beharko da PPK PSNri  
baldintzarik gabeko sos-  
tengua ematen dion edo  
sozialista eta jeltzaleen  
arteko akordiorik gauza-  
tzen den. Normalean lehe-  
nago gauzatzea litzateke,  
baina epeen arabera, uztail  
bukaera arte ere atzera dai-  
tezke gobernu eraketak.

**NOLA UZTARTZEN DIRA** pluraltasu-  
na eta diziplina? Alderdien malguta-  
sun eskasaren ispilu izaten dira udal  
ondorengoetan entzuten diren buru-  
zagi askoren adierazpenak, batez  
ere ezustekoak medio alkatetzak  
galtzen dituztenena. Aitortu behar  
irensterraza ez dela, baina pluralta-  
sunaz ahobete jardun eta gero ezin  
onartu pluraltasun horren ondorio-  
ak? Sartaguda, Zumaia eta Azpeitia  
dira adibide entzutetsuenak. Sal-  
buespena ukazina da, berez dago  
hor; eta salbuespena ez denean,  
orduan bai barne irakurketa politiko  
zorrotza ezinbestekoa da, EAJn,  
PSN-n, EAEn...

20, 30, 35, 40... eta  
50 urtera arteko hipotekak.  
Tasazio-balioaren  
%100eraino  
eta abalik gabe.

zeure erara  
**bbk**  
hipotekak

etxetik botako  
zaituzte